

XVI-XVII mendeetan, garapen ekonomikoak bultzatuta, Europako hainbat nazio inperio kolonialak sortu eta garatu zituzten: Espainia, Portugal, Frantzia, Ingalaterra eta Holanda. Inperio kolonial horiek merkataritzaren garapena ekarri zuten eta horren ondorioz izugarriko aberastea. Merkataritzan oinarritutako kapitalismoa garatu zen eta horren itzalpean erregeek aukera izan zuten beren boterea handitzeko. Aldi berean inperio horien artean lehia sortu zen eta, denbora pasa ahala, liskarrak: norberak bestearen ahultzea nahi zuten bere agintzapean zeuden lurraldeak handitzeko.

Ikuspegi politiko batetik, esan beharra dago garai horretan monarkia autoritarioak absolutistak bilakatu zirela. Antzinako Erregimenaren garaia dugu eta orduan erregeak botere guztia beren eskuetan biltzen joan ziren, eta horretarako aristokraziaren laguntza eta burgesiak ematen zien euskarri ekonomikoa izan zituzten. Hainbat naziotan, hala ere, monarkia absolutua ez zen sendotu: Ingalaterran eta Holandan erregeen boterea Parlamentuek kontrolatzen zuten.

Gizarteari dagokionez, garai hartan estamentu gizarteak indarrean egoten segitu zuen (gailurrean erregea zegoen; bere azpian noblezia eta goi klerikotza eta azkenik, hirugarren mailan, herri xumea edo "hirugarren estatua"), non gero eta handiagoa izaten joan zen klase pribilegiatuen (noblezia eta burgesia) eta beheko klaseen (nekazariak eta artisauak) arteko aldea.

Descartes bizi zela Hogeita Hamar Urteko Gerraren testuinguruan kokatu behar dugu. Gatazka horrek Europan nork eduki behar zuen nagusigoa erabakiko zuen. Westfaliako Bakea sinatu ondoren, Espainiak dekadentzia-aldia ezagutu zuen, eta horren aurrean Frantzia eragin handiena zuen Estatu bilakatu zen. Ikuspegi sozio-ekonomiko batetik, gerraren ondorioek Europa suntsitu zuten: populazioa izugarri murriztu zen (hainbat lurraldetan gerra baino lehenagoko populazioaren erdia galdu zen) eta Europako estatuak hamarkada batzuk behar izan zituzten gatazka eragindako krisi sakon horretatik ateratzeko.

Erligioari dagokionez, Erreforma protestante eta Kontrarreforma katolikoaren arteko liskarra gertatu zen (Hogeita Hamar Urteko Gerra liskar honen adierazle bortitza izango zen). Liskar horretan jesuitak nabarmendu ziren, protestantismoaren aurrean fede katoliko indartzeari ekin ziotenak, eta janseanismoa ere bai, Arnauld eta Pascalen idazkien bidez Frantzia zehar hedatu zen mugimendu katolikoa.

Arteari dagokionez, Barrokoren garaia dugu XVII mendea. Arte barrokoaren ezaugarritzat har daitezkeen ezaugarriak hauek dira: estilo klasikoaren forma garbiak hautsiz eta baretasuna gaindituz, dinamismoa eta bizitasuna nabarmendu nahi ditu, forma oparoen eta lerro kurbatuen eta kontrasteen bitartez. Efektu estetiko horiek, alde batetik fededunen fede bizkortzea bultzatu nahi zuten eta, bestetik, erregeen boterea goraiatu nahi zuten. Barrokoko artista nagusiak Velázquez eta Bernini izan ziren. Literaturan, bere aldetik, gizakiari buruzko ulertze pesimista azaltzen zen, bizitzaren iheskortasuna eta hutsaltasuna nabarmenduz, eta heriotzarekiko kezka handia ere azaltzen zen.

Descartes testuinguru filosofikoari buruz, bere heziketan bi eragile nagusi aurki daitezkeela esan beharko genuke. Alde batetik, gaztaroen jesuiten ikastegi batean filosofia eskolastikoan hezi zuten, bestaldetik, geroago Montaigneren eszeptizismoak eta bere garaiko beste intelektual batzuen ideiak ezagutzeak eragin zuen berarengan, ideia horien artean Gassendiren atomismoa eta Hobbesen enpirismoa. Descartesek Eskolastikak aintzat hartzen zuen aginpidearen argudioaren balioa ukatu zuen, baina, bestalde, ez zuen eszeptikoek proposatzen zituzten argudioak, erlijio eta filosofiaren oinarriak ahultzen baitzituzten, eta horien aurrean dudatu ezin den ziurtasun bat bilatu zuen ezagutza osoaren oinarritzat ezartzeko.

Descartes-en filosofia Iraultza zientifikoaren garaikidea da. Galileo iraultza horren abiarazlea izan zela esan daiteke. Galileok jakintza zientifikoaren eredu berri bat proposatu zuen, arrazoimena eta esperimendua uztartzen zituena. Arrazionalistek, eta horien aurrealdean Descartesek, zientzia berriarentzat egiten duen ekarpenarengatik matematika aintzat hartu zuten, eta naturari buruzko ulerkuntza mekanizista proposatu zuten. Horrekin batera, erabateko moduan fidagarria den metodo bat bilatzen zuten, ezagutzak modu ziur batean aurrera jotzen duela bermatu behar duena.

XVII. mendean bi korrante filosofiko nagusi sortu ziren, XVIII. mendean iraun zutenak:

- **Arrazionalismoa:** Ezagutza guztiak arrazoimenean oinarritzen dituen mugimendua. Hiru filosofo aipatu beharrezkoak dira: Descartes, Spinoza eta Leibniz. Proposatu zituzten sistema filosofikoetan erabateko moduan berriak ziren elementu batzuk daude: Subjektua (ezagutzen duen hori) sistema osoaren ardatz bihurtzen da, Naturak (objektua: ezagutzen den hori) bere lege mekaniko propioak baditu ere. Subjektua eta objektuaren artean ezartzen den bereizketa eta aldeak gaur egun arte iraun duen problema bat ekarriko zuen: nola uztartu, nola adiskidetu bi mundu horiek, “res cogitans” (pentsatzen duen gauza) eta “res extensa” (hedadura duen gauza).
- **Enpirismoa:** Ezagutza guztiaren iturria esperientzia dela defendatzen duen mugimendua. Bere ordezkari nagusiak hauek izan ziren: Hobbes, Locke, Berkeley eta Hume. Filosofo horien eskutik Aro Modernoko pentsamendua tradizioaren menpekotasunetik askatu zen; arrazoizko egia beharrezkoak eta unibertsalak aintzat hartu beharrean, arrazionalistek egin zuten moduan, balio zientifikoa duen gauza bakarra gertakizunei lotuta dagoena. Arrazionalismoa Europa kontinentalean garatu zen bitartean, Enpirismoa Britainia Handian garatu zen.